



SINATZAILEA

Igantziko Alkatea  
JUAN CARLOS UNANUA NAVARRO  
2026/01/07

SINATZAILEA

Igantziko Idazkaria  
NAGORE MADARIAGA IRIARTE  
2026/01/07Ayuntamiento de Igantzi  
Igantziko Udala

NIF: P3125900E

## INDUSTRIA, NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDIAK

Espedientea 228143Q

**2025-2026 KANPAINAN IGANTZIKO  
HERRI LURRETAN BURUTU BEHAR  
DIREN MENDIKO LANEN OBRA  
KONTRATUA BERDABIO  
BASOGINTZA, S.L. ENPRESARI  
ESLEITZEA.**

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiak, apirilaren 23ko 21/2025 Ebazpenaren bidez, tokiko erakundeek eta eragile pribatuek sustatutako mendiko lanetarako laguntzen 2025-2026 mendi kanpainarako oinarri arautzaileak eta deialdia onartu zituela.

Ikusirik Martin Mindeguia Ochandorena baso-ingeniari teknikoak idatzitako 2025-2026 kanpainan Igantziko herri-lurretan egin beharreko mendiko lanak gauzatzeko proiektua.

Ikusirik Igantziko Udaleko alkatearen abenduaren 16ko 186/2025 Alkate Ebazpen bidez 2025-2026 kanpainan Igantziko herri lurretan burutu behar diren mendi lanen obra kontatua zenbateko txikiko kontratuatarako araubidez esleitzeko prozedura erabiltzeko agindu zela.

Ikusirik 2025eko abenduaren 16an Igantziko Udalak hainbat enpresei aipaturiko obra exekutatzeko euren proposamenak aurkezteko gonbidapena helarazi ziela.

Ikusirik hauek izan direla aurkezturiko eskaintzak:

**ADJUDICACIÓN DE LA OBRA DE  
TRABAJOS FORESTALES A REALIZAR  
EN EL MONTE COMUNAL DE IGANTZI  
EN LA CAMPAÑA 2025-2026 A  
BERDABIO BASOGINTZA, S.L.**

Vista la Resolución 21/2025, de 23 de abril, del Director General de Medio Ambiente, por la que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para la campaña de trabajos forestales 2025-2026, promovidos por entidades locales y agentes privados,

Visto el proyecto de ejecución de las obras de los trabajos forestales a realizar en el monte comunal de Igantzi en la campaña 2025-2026, redactado por el Ingeniero Técnico Forestal Martin Mindeguia Ochandorena.

Visto que mediante Resolución de Alcaldía 186/2025, de 16 de diciembre, se ordenó la utilización del procedimiento de adjudicación mediante el régimen especial para contratos de menor cuantía para los trabajos forestales.

Visto que el 16 de diciembre de 2025 el Ayuntamiento de Igantzi invitó a varias empresas a presentar sus propuestas para la ejecución de la citada obra.

Resultando que las ofertas presentadas han sido las siguientes:

| IZENA/NOMBRE                    | IFK/CIF   | ZENBATEKOA (BEZ kanpo)<br>/CUANTÍA (IVA excluido) |
|---------------------------------|-----------|---------------------------------------------------|
| REPOBLACIONES AGUINAGALDE, S.L. | B20950366 | 34.266,17                                         |
| OIHAN ZERBITZUAK, S.L.          | B31973480 | 31.440,10                                         |
| BERDABIO BASOGINTZA, S.L.       | B20679627 | 30.027,06                                         |
| EULEN, S.A.                     | A28517308 | 35.166,98                                         |

**EBATZI DUT:**

1) 2025-2026 kanpainan Igantziko herri lurretan burutu behar diren mendiko lanen obra BERDABIO BASOGINTZA, S.L. enpresari esleitzea 30.027,06 €-tan (BEZa kanpo).

2) Esleipendunari jakinaraztea udako garbiketa lanak ekainaren 1ean hasi eta irailaren 15a baino lehen egin beharko direla eta, gehienez ere, lan guztiak **2026ko**

**RESUELVO:**

1) Adjudicar la obra de los trabajos forestales a realizar en el monte comunal de Igantzi en la campaña 2025-2026 a la empresa BERDABIO BASOGINTZA, S.L. por un importe de 30.027,06 € (IVA excluido).

2) Informar al adjudicatario de que los trabajos de limpieza de verano deberán realizarse entre el 1 de junio y 15 de septiembre, en todo caso, **los trabajos**



IGANTZI

Egiaztapen-aseguru kodea: CFCA AANU V9JU AQV9 DXF7

**Resolución Nº 1 de 07/01/2026 "2025-2026 KANPAINAKO MENDIKO LANEN OBRA BERDABIO BASOGINTZA, S.L.RI ESLEITZEA" - SEGRA 106879**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.igantzi.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Igantziko Alkatea  
JUAN CARLOS UNANUA NAVARRO  
2026/01/07Ayuntamiento de Igantzi  
Igantziko Udala

NIF: P3125900E

## INDUSTRIA, NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDIAK

Espedientea 228143Q

**urriaren 2rako bukatuak egon beharko direla.**

3) Esleipendunari jakinaraztea obra hau kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko dira, eta kontratistaren kontura izanen dira kontratua gauzatzean izaten dituen galera, matxura edo galerak, interesdunak aseguratu ahal izateari kalterik egin gabe.

4) Esleipendunari jakinaraztea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 70. artikuluan xedaturikoaren arabera, aurkezturiko eskaintzaren %4eko behin betiko bermea (1.201,08 €) aurkeztu beharko duela Igantziko Udalean 7 EGUNEKO epean, Ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, esleipena indarrean sartu dadin.

Ordainketa hau 2/2018 Foru Legearen 70.2. artikuluan xedaturikoaren arabera formalizatu ahal izanen da. Banku transferentzia bidez ordaindu nahi izanez gero, ondorengo kontu korrontera egin beharko da:

- Caixabank: ES04 2100 5249 2122 0002 3916

*Kontzeptuan ebazpen zenbakia paratu.*

Era berean, obraren jasotze akta sinatu eta biharamunetik kontatzen hasita URTE BATEKO epean mantenduko da bermea. Horrela bada, aipaturiko epea iraganda, dena zuzen badago, bermea esleipendunari itzuliko zaio.

5) Esleipendunari jakinaraztea proiektuan ezarrita ez dagoen guztirako, Kontratu Publikoei buruzko 2/218 Foru Legea eta gainerako araudia aplikatuko dela.

6) Ebazpen hau interesatuei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

**deberán estar terminados como máximo el 2 de octubre de 2026.**

3) Comunicar al adjudicatario que la ejecución de esta obra es a riesgo y ventura del contratista, siendo de su cuenta las pérdidas, averías o perjuicios que sufra durante la ejecución del contrato, sin perjuicio de que el interesado pueda asegurarla.

4) Comunicar al adjudicatario que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, deberá presentar ante el Ayuntamiento de Igantzi, en el plazo de 7 DÍAS, a contar desde el siguiente al de recepción de la notificación de la presente Resolución, la garantía definitiva del 4% de la oferta presentada (1.201,08 €) para que la adjudicación entre en vigor.

*Este pago podrá formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley Foral 2/2018. En caso de pago mediante transferencia bancaria deberá realizarse a la siguiente cuenta corriente:*

- Caixabank: ES04 2100 5249 2122 0002 3916

*Escribir en el concepto el número de resolución.*

*Asimismo, la garantía se mantendrá en el plazo de UN AÑO a contar desde el día siguiente a la firma del acta de recepción de la obra. En tal caso, transcurrido dicho plazo, si todo es correcto, se devolverá la garantía al adjudicatario.*

5) Informar al adjudicatario que todo lo no previsto en el proyecto se regirá por la Ley Foral 2/218 de Contratos Públicos y demás.

6) Notificar la presente Resolución a las interesadas, para su conocimiento y efectos oportunos.



IGANTZI

Egiaztapen-aseguru kodea: CFCA AANU V9JU AQV9 DXF7

**Resolución Nº 1 de 07/01/2026 "2025-2026 KANPAINAKO MENDIKO LANEN OBRA BERDABIO BASOGINTZA, S.L.RI ESLEITZEA" - SEGRA 106879**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.igantzi.eus/>

2tik 2 orrialdea